

...eta

# Kitto!

880 zkia.  
2014-11-28



# GARBIGUNEA Birziklatzeko bidean LAGUN



**Catalana  
Occidente**  
Grupo asegurador

Eibarko Txikito, 8  
Tel. 943 200 908  
Faxa. 943 702 206  
Mobila. 610 422 179  
emilio.toyos@catalanaoccidente.com

**150** URTE zure  
etorkizunean  
pentsatzen

(Emilio de los Toyos)  
Erreg. zkia. C046815351532K

**DENETARIKO ASEGUURUAK**

- Erantzukizun zibila
- Autoak
- Bizitza eta Jubilazioa
- Osasun aseguruak
- Istripu banakako eta kolektiboak
- Arrisku anitzetarako: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa txikiak eta ertainak, PYMEak, Tailerrak



# ARATOSTIETAKO...

**Armen fabrika**

Arkepe

Gastro-Pub



**LA COSTURA**  
JANTZIGINTZA, PATROIGINTZA ETA BORDATUA

**TXURRUT**

MARTXOAK 1 ZAPATUA 00:30TAN, GOI-MAILAKO JOSKINTZARI BURUZKO IKASGAI MAGISTRALA + ONGIETORRI KOKTELA.  
KRISTOBAL BALENCIAGA MAISUAREN ESKUTIK



**KULTU**

Lehen, gaur eta betiko  
**GURPIL MUNDUA**



**EZ DOK**

giro ezinhobea  
"Matador" taskan



**TXOKO**

Gozo, gozo...  
karamelozo...  
pasatuko duzu!



armen museoa  
baino gehiago

**XOK**



**GURIDI**

EIBAR:  
Beharra  
ARTE  
bihurtuta



**BOSSA**

Jaia, alaitasuna,  
koko-jantziak...



... **GIRORIK**  
**ONENA!!!**

## ASTEAN ESANAK

"Egun eskal literatura postnazionalaren triangeluaren ertzak Maialen Lujanbio, Toti Martinez de Lezea eta Ramon Saizarbitoria dira. Euskal literatura inoiz literatura izango bada, literatura espainiarraren morroi izateari laga beharko dio, eta Atxagak morrontza hori ezarri zigun. Saizarbitoriak, aldiz, literatura sistema espainiarretik kanpo bere bidea egitea lortu du"

(JOSEBA GABILONDO, MICHIGAN STATE UNIVERSITY-KO IRAKASLEA)

"Gallardonon abortoarene lege berriaren inguruko galdera: harreman sexualaren fruitua, harreman hori intimoena izanda ere, pertsonaren dimentsio sozialetik kanpo geratzen da emakumeek euren gorputzarekiko jabetza pribatu eskubidea dutelako? Sozialismoak ez dio justu kontrakoa?"

(JOSEBA ARREGI, ANALISTA)

"1914an 11.000 biztanlera iristen ez zen Eibarren, 2.000tik gora lagunek egiten zuten lan armagintzan. Erresuma Batuari, Italiari eta Errumaniari saldu zizkieten pistolak eskal armaginek, historiako produktorik handienara iristeko: lau urtean, bi milioi pistola inguru saldu zizkieten aliatuei"

(JON FERNANDEZ, KAZETARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

**KAKATSU.**- Zeregin gogaikarria, nazkagarria. Zikina. "Bihar kakatsua eta irabazi laburrekua, oinguan etorri jatana". "Astegunian apaindu eta jaixegunian kakatsu".

**KAKATZA.**- Basatza. Simaurtza. "Neguko eurixegaz kakatza haundixa batzen da zuen baserrixan". "Basatzia eta lokatzia dira lur edo buztiñakinguak; kakatzia, usteltzerako gauzenkingua".

**KAKAZTU.**- Zikindu. Alperrik galdu, hondatu. "Mendixan ibillitta dana kakaztuta itzuli desta motorra". "Egoeria oso nahastuta eta kakaztuta dago gure artian, zoritxarrez".

## eskutitzak

### S.O.S.: EZ DAKAGU EZ ZEBRA-BIDERIK EZTA ESPALDIRIK BE

Apalategi eta Arrate-balleko bizilagunak gara. Eta auzo horretan, oiñez ibiltzeko gora eta behera, sekulako arazuak dittugu, ez dakagulako ez espaldirik ez zebra-biderik.

Auzuan jende pillua ibiltzen da: bizilagunak dirala, taillarretako bihargiñak eta, baita, konzesionarioen bezeruak be. Horrez gain, Arrateko pausuen bidari hasteko be oso-oso arrisku-

tsua bihurtzen da. Esaterako, Eibarko mugari guztiak ezagutzeko Deporrek antolatutako ekimenian be, 35 kilometroko ibilbidian arriskua dagan toki bakarra Azittaingo biribilgune horretakua izango da.

Apalategiko arazo horrek konponbidia bihar dabelakuan gagoz. Berandu baiño lehen.

JABI DE LA VIUDA



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** [erredakzioa@etakitto.com](mailto:erredakzioa@etakitto.com) / [komunikabideak@etakitto.com](mailto:komunikabideak@etakitto.com) / [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com) **Elkartearen E-MAILak:** [elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com) / [normalizazioa@etakitto.com](mailto:normalizazioa@etakitto.com)

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



## Toribio Etxebarria Sarixak abian

Aurreko barixakuan presentau zeben **Toribio Etxebarria-Ekintzaitza Berri-tzailliar Euskadi Sarixen 24. ediziñua** Miguel de los Toyos alkatiak eta Marisa Arriola Bic Gipuzkoa Berrilan-eko zuzendarixak, udaletxeko pleno aretuan. Emon zittuen datuen arabera, "sarixak sortu ziranetik gaur arte 500 bat proiektu presentau dira, 33 millioi euroko inbetsiñuak eragin dittue eta euren hari-ra 680 lanpostu zuzen sortu dira".

Sarixak arlo horretako garrantzitsuetakuak dira eta bultzatzaille nagusi-

xak Eibarko udala, bertako Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza sailletik eta Bic Gipuzkoa Berrilan dira, baiña beste askoren babeseta lagun-tasuna be badake. Ediziño honetarako agirixak aurkezteko epia martxuaren 25ian amaittuko da.

Parte hartu nahi dabenak izena emoteko orrixa bete eta eskatzen dan dokumentaziñua [www.toribioechevarria.com](http://www.toribioechevarria.com) webgunera igo biharko dabe. Sarixen inguruko informaziño guztia be bertan dago.



Marisa Arriola eta Miguel de los Toyos ediziño barrixaren aurkezpenian.

## Fran Lasuenen omenezko afarixa

Birjiñape taberniak antolatuta, **Fran Lasuen musikuari omenaldi-xa egingo detse martxuaren 14an** eta, horretarako, "Fran Lasuenekin atzera be topatzia" izenburuko maridaje-afarixa preparau dabe (21.30xetan hasiko da). Afarira juatera animatzen diranak, Socadiak saltzen eta banatzen dittuan Bodegas San Prudencio-ren ardauek dastatzeko aukeria eukiko dabe, hiru erreferentzia ezbardin etarako dittue-eta jateko egongo diran hiru platerri laguntzeko. Gaiñera, Socadiaren eskutik Ruben Saenz Lopez arandegi horretako enologia bertan egongo da. Afarirako txartelak 30 euro balixo dau eta Birjiñapen bertan ipiñi dittue salgai (izena emoteko



edo informaziñua eskatzeko tabernara juan edo 943821341 telefonora deittu leike, plaza mugatuak dira).



## Eskualdeko ordezkariaren batzarra

Eguaztenian Debaldeako LAB-eko ordezkariak Armerixa Eskolan bildu ziran, egoera politikua, negoziaziño kolektibua eta beste gai batzuren inguruan berba egitteko. Horrekin batera, FMI-k martxuaren 3an Bilbon egingo daben goi-gaillurraren kontra GUNE plataformiak antolatutako mobilizaziñuen barri emon eben eta martxuaren 10etik 21ra bittartian Euskal Herrixa ziharkatuko daben Eskubide Sozialen Aldeko Martxiaren inguruak azaldu zittuen. Bileria amaittu eta jarraixan Untzagan alkarrataratzia egiñ eben eta, bide batez, martxuaren 3an Bilbora juan nahi dabenendako Eibartik eta Bergaratik urtengo diran autobusak antolatu dittuela emon emon eben aditzera.



Julian Etxebarria Deporreko mendi batzordekoa mugarri baten koordinadak gordetzen. PERIKO IRIONDO


## Eibarko mugarrixak ezagutzeko aukeria

Eibarko mugarri guztiak etapa bittan ezagutzeko aukeria egongo da martxuaren 15ian eta 29xan, Klub Deportiboko Julian Etxebarria, Periko Iriondo eta Angel Treviño egindako biharrari esker. Oñez 35 kilometro eginda gure herrixak dittuan 71 mugarrixak ezagutzeko ibilbidia egoibarra.com webgunian eskuragarri ipiñi da-

be. Ermua, Mallabia, Markina-Xemein, Elgoibar, Soraluze, Bergara, Elgeta eta Zaldibar herrixekin mugarrixak dakaz Eibarek eta hórrek ezagutzeko lehelengo urteera egunian (martxuaren 15ian) Ego errekiaren ezkerreko aldi ibiliko dira eta bigarrenian (29xan), barriz, errekiaren eskuma aldi.

## Anton Artamendi teologua hil da

Jose Antonio (Anton) Artamendi Mugerza filosofo eta abade eibartarra domekan hil zan, 80 urterekin. Astelehenian San Andres elizan haren aldeko hilleta-otoitza egiñ eta, ondoren, bertako hillerrixan hobiratu eben. Antonek ikasketak Eibarren hasi, Donostian



Artamendi 2005ian kaleratu eban liburuarekin.

eta Gasteizko seminarixuetan segidu eta Erroman biribildu zittuan, Aristoteles eta Alemaniako filosofoak lantzen. Handik Parisera juan zan eta, han Merleau Ponti ezagutu eta gero, bere obra filosofikuaren inguruan egiñ eban tesixa. Etxera bueltan, irakasle biharrari ekin zetsan Donostian. Madrilgo Complutentsera juan zan gero eta, han eguala, Xabier Zubiri filosofoak deittuta, bost urte emon zittuan han. Donostiako EUTG-n eta Deustun be jardun eban, jubilau arte. Bere liburuaren artian, 2005ian argittara emondako "Hablando con Zubiri - Sobre la identidad nacional" dago. Horren aitzakixarekin ...eta kitto!-k alkarrizketia egiñ eta urte hartako abenduaren 20xan kaleratu eban.

## Begiratokixen ibilbidia prest

Euskal Kostaldeko Geoparkiak natura-turismuaren inguruko eskintza zabaldu dau eta, horretarako, Geoparkiaren ikuspegi osua jaso eta bertako toki interesantienak ezagutu nahi dabenendako 55 kilometroko ibilbidia preparatu dau. Bakotzak nahi daben moduan egiteko moduko ibilbidian 15 miradore prestatu dittue eta bakotxian inguru horretako informaziñuaren barri emoten daben panelak ipiñi dira. Horrekin batera ibilbidia eta begiratokixak jasotzen dittuan mapa turistikua emon dabe argittara. Nahi dabenak Zumaia, Deba eta Mutrikuko turismo buleguetan eta Algorri eta Nautilus interpretaziño zentruetan eskatu leike mapia (dohaiñik) edo, bestela, geoparkea.com webgunian sartu eta fitxategixa jaitsi.



## autuan

### "ZULOAK" GAZTETXIAN

Martxuaren 8xan Andrazkuen Naziñoarteko Egunaren harira proiektiñua antolatu dabe Eibarko gaztetxian: 20.00etatik aurrera "Zuloak" film dokumentala eskinduko dabe, ikusi nahi daben guztiendako.

### 1949-XAN JAIXOTAKUAK

Aurten 65 urte bete edo beteko dittuenak martxuaren 22xan batuko dira: 13.00etan Koskor tabernan alkartu eta jarraixan taldiaren erretratua egingo dabe. Koskorren piskolabisa hartu eta gero, bazkarixa eta dantzaldixa Krabeliñen izango dira. Eibarrera bueltatzeko autobusa 19.30xetan hartuko dabe eta, jaixa amaitzeko, Kultu tabernara juango dira pintxuak jatera. Juan nahi dabenak 60 euro sartu biharko dittue Kutxabank-eko 2095 5090 10 1072080723 kontu korrontian, izena eta abizenak argi azalduta. Informaziño gehixagorako 635717400 telefonora deittu.

### JUBILAUAK BE BERBETAN-EKIN

...eta kitto!-ren egitasmuarekin bat egiñez, Untzagako jubilau etxeak euseria praktikau nahi dabenendako Berbalagun Kafe Taldia osatu nahi dabe. Izena emoten dabenak hilleko bigarren eta laugarren astelehenetan, 11.00etatik 12.00xetara alkartuko dira. Antolatzaillik eibartar guztiak, euskaldun zaharrak eta barrixak parte hartzera animau nahi dittu. Interesa dakenak martxuaren 14a baiño lehen jubilau etxeko buleguetara juan biharko dabe izena emotera (astelehenetik barixakura, 11.30xetatik 13.00era).

**Saratsuegi, 5**  
**943-257605**  
APARKATZEKO  
arazorik gabe

**Restaurante** *ba Jara*



Menu bereziak  
ospakizun eta urtebetetze  
merendoletarako

**Oilasko erre osoa,  
patata frijituekin (10 €)**

**Eguneko menua  
(astelehenetik ostiralera)**

**Plater konbinatuak**

**Kazuelitak**

**Razioak**

## ARATOSTE ZAPATUKO MENUA

**Pikatzeko**

– Kroketa eta urdaiazpikoa

**Jarraitzeko**

– Oilasko erre, patata frijituekin  
eta entsalada

**Amaitzeko**

– Sagar-tarta eta kafea  
(umeentzat, izozkia)

**16 € (UMEAK 10 €)**

Urteko Rioja ardoa, Lambrusco,  
sagardoa, ura eta ogia **BARNE**.



## asteko %15 datua

igo da Lanbide Heziketako ikasle-kopurua. Kurso honetan 1.501 lagun dagoz matrikulata, 365 Uni-xan, 351 Armerixan, 262 Elgoibarko Mekan, 240 IMH-ian, 107 Mutriku BHI-n, 59 Eibarko PCPI-n eta 47 gehixago Ermukuan.



Eibartar mordua alkartu zan Untzagan aurreko zapatuan. LEIRE ITURBE

## Esku erraldoia osatu zan Untzagan

Gure Esku Dago-San Blas Zati Bat taldiak egin-dako deixari erantzunda, eibartar mordua alkartu zan Untzagan aurreko zapatuan, danak alkarrekin esku erraldoia osatu eta erretratua egitteko. Erabagitzeko eskubidiaren aldeko ekimena ezagutzera emoteko asmoz, Eibarren ez eze Euskal Herri osuan dabiz ekitaldixak egiten. Ekitaldi nagusiña ekaiñaren 8xan egingo da, Durango-Iruñea lotuko dabiz giza-kataia osatuta. Horretan parte hartu nahi dabiznak Kultur eukiko dabe izena emoteko aukeria, aste-

lehenetik barixakura bittartian (egunero 11.00etatik 13.00era eta martitzenetan 19.00etatik 20.00etara be).

Gure Esku Dago dinamika ezagutzera emoteko preparau dabiz programan aurrera eginda, martxuaren 29rako Bilboko La Casillan ekitaldixa antolatu dabe (17.30xetan hasitta), "herririk herri egitten diharduen biharra erakutsi eta bultzatzeko eta ekaiñaren 8ko giza-kataiari begira taldiari bultzadia emoteko modua be izango dala aurreratu dabe.



Zergatik praktikatzin dugu sexua erderaz?

## Oihan Vegaren "Euskararen Espektakulue" Eibarren

Datorren martxoaren 21ean, barixakua, eta ...eta kitto! Eus-kara Elkartearen eskutik, arrakasta izaten diharduen "Euskararen Espektakulue" monologoa ekarriko du Oihan Vegak Portaleara. Arratsaldeko 19.30etan hasiko den saiorako sarrerak martxoaren 7tik 21era egongo dira salgai ...eta kitto!-n bertan eta Kultu tabernan 3 eurotan. Umorea eta sarkasmoa erabiliz euskeraren erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatuko gaitu Oihan Vegak, bakarriketa komiko dibertigarri eta ironiko honekin, musikaz, kantuez eta zineaz lagunduta. Zergatik praktikatzin dugu sexua erderaz? Nork daki euskaraz iraintzen? Eguneroko bizitzan zergatik jotzen dugu horrenbeste erdarara?...eta beste hainbat galderari erantzuten saiatuko da ikusleekin batera.

## Prim jeneralaren panteoia barritu dabe

Reuseko udalak Placido Zuloaga artista eibartarrak 1874-1875 urtien bittartian damaskinau eban Prim jeneralaren panteoia zaharbertitu dau Reuseko udalak, bere heriotzaren berrehungarren urteurrenaren harira. Panteoiak brontzez eta zillarrez landutako plafoiak dakaz erdialdian, gerra-irudixekin apainduta. Beheko partian margotutako



brontzezko lau aplike dagoz, zillarrarekin apainduta, erloju eta burezur batekin batera. Beste guztia, urre eta zillar harixak apainduta dago. Artelana 150 piezak osatzen dabe, tartian 10.000 torlojuk eta 1.800 kilo pisatzen dittu.



**Jorge Imaz Bolinaga**

---

**KOMUNITATEEN  
ADMINISTRAZIOA**

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.  
Tlf. 943 53 03 03

[imazjorge@hotmail.com](mailto:imazjorge@hotmail.com)

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan      Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK   • ESKELAK   • HILARRIAK   • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:      ZERBITZU IRAUNKORRA:  
Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.      ☎ 943 201095 fax: 943 202564



*Lau eta hamabi urte bitarteko umeei osasuntsu jatea zer den azaltzeko, martxoan hainbat tailer emango ditu Nutrieibar-eko Aurora Cid dietista-nutrizionistak, Maitane Arrondo lankidearekin batera, "Herri osasuntsu bat egin dezagun" izenburuari jarraituta. Gure bizitza erritmoak eta beste faktore batzuk eraginda, gero eta arreta gutxiago eskaintzen diogu gure elikadurari, jaten dugunak gure osasunari zein bizitza-kalitateari zuzenean eragiten diela ahaztuta. Nutrizionista honen ustez, baina, elikadura egokiaren garrantziaz zenbat eta lehenago jabetu, orduan eta hobeto. Hortik umeei hori lantzeko tailerrak antolatzea.*

**AURORA CID (Nutrieibar):**

## **"Umeei osasuntsu jaten ikasten badute, gurasoen ohiturak alda ditzakete"**

**- Nolatan animatu zara elikadura osasuntsuaren inguruko tailer hauek antolatzera?**

Tailerrak nire lankidearekin batera antolatu eta emango ditut. Izan ere, biok uste dugu elikadura egokiaren inguruko heziketa, beste edozein arlotakoa bezala, etxean, familia barruan landu beharreko kontua dela. Adin horretako umeei erakusten zaien guztia oso errez ikasi eta irentsi egiten dute eta, joko eta bestelakoen bitartez osasuntsu jatea zer den ikasi eta duen garrantzia barneratzen badute, etxera joatean gurasoei hori transmititu eta egokiak ez diren ohiturak aldatzea eragin dezaketela pentsatzen dugu.

**- Eta nola landuko dituzue edukiak?**

Asmoa umeei modu dibertigarrian osasuntsua dena eta ez dena bereizten ikastea da eta, Udaleko Gazteria sailaren eskutik sortu zaigun aukera aprobetxatuta, oso tailer dinamikoak prestatu ditugu: hizki-zopak, marrazkiak, ginkanak, power point-ak, sukaldaritza osasuntsuaren inguruko klaseak horiek eta beste batzuk erabiliko ditugu, jolasen bitartez sasoian-

sasoiko produktuak zeintzuk diren, azoketan salgai dauden barazki, fruta eta bestelakoak erakusten joango gara.

**- Elikadura egokiari lotutakoak ikasteko etxetik kanpora joateko premian gaude?**

Gurasoak sarritan gai batzuekin obsesionatuta ibiltzen gara eta, nahi barik, garrantzitsuak diren beste kontu batzuk alboratu egiten ditugu. Adibide bat aipatzearen, askok garrantzi handia ematen diote mahaian nola jarri behar den zaintzeari eta, aldiz, mahai gainean jateko ipinitakoa ez diote aparteko arretarik ipintzen. Edo umeei etxeko lanak egiteko denbora izateko azkar afaltzeko zerbait prestatzen diete, osasuntsua den ala ez den pentsatu barik. Eta beste batzuk eguneroko fruta eta barazkiak jateko behararekin itsutu egiten dira. Garrantzitsuena umeak jakiekin modu osasuntsu eta naturalean erlazionatzea da eta gu izan behar gara euren erredua. Oso interesgarria da erosketak egitera gurekin batera eramatea, azokan dauden produktuak zeintzuk diren eta zertarako diren onak azaltzea...

**- Produkturik arrakastatsuenak ez dira izaten osasuntsuenak...**

Osagaien zerrenda etiketetan irakurtzeko ardura gurea da, marketing eta bestelakoen eraginari aurre egiten ahalegindu

**"Janariarekin naturaltasunez erlazionatzen ikasi behar dugu"**

behar dugu, komeni ez diren horiek baztertzen jakiteko. Enbasatutako zukuek kalte egiten digun azukre mordoak izaten dute. Umeei hori ikasi eta zukua ateratzera doazen hurrengo aldian gurasoei ikasitako esplikatu eta fruta nahiago duela badio, hortik aurrera umeei eguneroko fruta eskura izan dezan arduratu beharko dute.

**- Eta zer egin dezakegu osasuntsu jateko?**

Zorte handia daukagu bizi garen tokian bizitzeagatik, besteak beste orotariko produktuak oso eskura dauzkagulako. Jateko erosiko duguna aldeztu aurretik pentsatzeak berebiziko garrantzia du, hortik abiatuta eta jateko prestatzeko sukaldaria bueltatzen bagara, bakarrik hori eginda aurrerapauso handia egingo dugu. Eta jarduera fisiko apur bat gehituta, biribildu egingo dugu. Elikadura desegokia larregizko pisuarekin lotu ohi da, baina hortik kanpora osasunarentzat kaltegarriak diren beste gaitz asko daude, diabetesa eta arrisku-kardiobaskularraren areagotzea, adibidez.

**"Umetan ikasitako ohiturak bizitza osorako izango dira"**



**Zumaian jaio eta gaur egun Eibarren bizi den 24 urteko abeslaria "Imprudentes Corazones" lan berria aurkezten dabil azken asteetan eta, orain dela gutxi Koskor tabernan eman zuen kontzertura joan zirenek, "pop-dance" estiloari jarraitzen dion diskoa zuzenean entzuteko aukera izan zuten. Bestela, Adei Cuenderen musika guztia [www.adeicuende.com](http://www.adeicuende.com) webgunean eta sare sozialetan entzun eta gozatu daiteke.**

**- Noiz hasi zinen abesten?**

Hamasei urterekin hasi nintzen kantua ikasteko klaseetara joaten, Donostiako irakasle batek erakusten zidan. Abestea gustatzen zitzaidala ikusita, honetan aurrera egitea erabaki nuen eta hainbat kantu-lehiaketan parte hartu eta gero, azkenean 2009an Eusko Dance izeneko irabazi nuen eta, horri esker, honetan jardun ahal izateko ateak zabaltzen hasi zitzaizkidan.

**- Hasieran euskeraz abesten zenuen, baina disketxea aldatzearekin batera, gaztelaraz kantatzeari ekin diozu. Zergatik?**

Eusko Dance lehiaketa irabazi eta jarraian kaleratu nituen nire lehen abestiak, lehiaketan nerekin ibili ziren dantzari biek batera: "Betirako", "Ero" eta "Eguneroko ilusioa" izan ziren nire lehen abestiak eta horietako bik, gainera, Euskadi Gaztea eta beste batzuen zerrendetan lehen postuan egotea lortu zuten. Baina jendeak gaztelaraz edo ingelesez abesteko eskatzen zigen eta, gainera, gaztelaraz kantatuta merkatuan tokia egitea errezagoa da, hortik hizkuntza aldatzeko erabakia.

**- Nolako da zure lan berria?**

Uveeefeue Music-en eskutik 2013ko irailean kaleratu dudana pop-dance estiloko hiru

abestik osatzen dute eta "Imprudentes Corazones", diskoari izenburua ematen dion singlea bidekliparekin lagundut. Abestiak gehitzen joateko asmoa daukat, izan ere diskoa bakarrik digitalean dago, Spotify eta iTunes plataformetan.

**- Zergatik aukeratu duzu bakarrik plataforma digitalean ateratzea?**

Batetik, gaur egun oso zaila da diskoak saltzea. Eta, horrekin batera, plataforma digitalek hainbat abaintaila dauzkate: disko fisikoa grabatzeak gastua dakar, baina plataforma digitalean ez da ezer ordaindu behar abestiak bertan pintzeagatik. Eta zabalkundea internet bidez egitean, merkatuak ez dauka mugarik, mundu osora saldu daiteke.

**- Orain dela gutxira arte pop-dance estiloa nahiko ezezaguna izan da, inguru honetan behintzat...**

Egia da rockak indar handiagoa izan duela betidanik. Orain dela urte batzuk estiloari txarto begiratzen zioten batzuk, baina gauzak aldatzen joan dira eta gero eta jende gehiagori gustatzen zaizkio nire abestietako erritmoetan darabilten estiloa. Parrandan dabilenak dantzan egiteko moduko abestiak eskatzen ditu.



Adei Cuende  
(ABESLARIA)

**"Dantzan egiteko abestiak eskatzen ditu jendeak"**

**Itzadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarara, gaztelaratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com



## Udaberri Sariarekin hasten da gure herriko tzirrindularitza denboraldia



lazko edizioko podiumaren irudia.

Domeka goizean, 09.45etan hasiko den junior mailakoentzako lasterketarekin, ekingo dio denboraldiari Eibarko Tzirrindulari Elkarteak.

Udaberri probaren 36. edizioa Javier Gallastegiren omenez jokatzeko den 21. urtea izango da eta minutu bateko isilunea gordeko du orain dela egun batzuk hildako Juan Carlos Sarasua gogoratzeko (urterik-urte proban laguntzen izan zen azken hau).

Lasterketak 78 kilometroko ibilbidea izango du eta inoiz baino lehenago hasiko da aurtun, ohiko irteera ordua 45 minututan aurreratuz. Tzirrindulariek Eibartik Bergarara joko dute, handik Maltzagara etorri eta Ondarruraino joateko eta, azkenik, Markinatik eta Elgoibartik pasata, gure herrira bueltatuko dira, garaipearen bila, 11.40ak bueltan.



## Harrobiko talde guztiak garaile Somosen 2. porrotean

**Eibar Eskubaloiko harrobiko taldeak garaile izan ziren azken asteburuan jokaturako partiduetan:** Euskal Ligako bigarren fasean, jubenil mutilek 23-22 irabazi zioten beti zaila den Zarautzi eta liga horretako kadeteek 33-25 Karibe Berriri. Gipuzkoako Federazio txapelketan den jubenil mutilen taldeak 29-32 irabazi zuen Erreterian eta Lurralde mailan diren kadete mutilen artean, Melfun Eibarrek 14-41 menperatu zuen Bergara. Infantiletan, bestalde, Gipuzkoako txapelketaren lehian den Eslaban Eibarrek 15-20 irabazi zion Ordizia Orkliri, lidergoa eskuratuz, eta maila bereko nesken A taldeak 22-8 egurtu zuen Usurbil.

## Eibar-Sporting: lidergoa jokoan domekan

Domeka eguerdian Ipuruan jokoan izango diren puntuek berebiziko garrantzia izango dute 2. A mailako sailkapenaren goren-gorenean. Eibar liderrak sailkapenean abantaila hartu duen laukotearen azkena hartuko du 12.00etan: Xixongo Sporting puntu bakarrera dago eta 1. mailara igotzeko taldea osatu du. Orain arte 12 aldiz jokatu dute asturiarrek Ipuruan: bostetan Eibar garaile izan da. Lehenengo iztulian, El Molinonen: 3-2 asturiarren alde. Ez da hau Eibar Foball Taldeari telebistaz emango dioten partidu bakarra, hurrengo biak ere (Alcorcon eta Herculesen aurka).



Scepovic aurrelaria.



Funeraria-Ehorztetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

**Betirako izango zara gure artean**

ZURE FAMILIA





**ANDONI ARGOITIA URKIOLA**  
I. URTEURRENA  
2013-II-28



## Xakeko Eibar B-k igoera play-offa jokatuko du

Xakeko Klub Deportiboko bigarren taldeak Hemanin jokatuko du bertako bigarren taldearen aurka 1. mailara igotzeko faseko lehenengo txanda. Horretarako, baina, 2. mailako lehen postua eskuratu zuen, azken jardunaldian Bergara Zaleak-i 3-1 irabazita: Jon Aranak, Xabier Beorlegik eta Emi-

lio Jose Freirek lortu zituzten puntuak. Maila gorenean diharduen Eibar A-rentzat ere asteburu bikaina izan zen, 3'5-0'5 nagusitu baitzen Hernaniren aurrean. Horko partidetan, Ricardo Bastida, Julen Garro eta David Perez garaile izan ziren, Alex Aranzabalek berdintzen zuen bitartean. Deporre-



Azken jardunaldiko partidak Deporren.

ko taldea 2. postuan dago, liderrarengandik puntu baka-

rrera, eta bihar Arrasate-Arlutz taldearen aurka jokatuko du.



Mungian parte hartu zuten Deltecoko ordezkariak.

## Herriko triatletak Mungian eta Bejarren izan ziren

Pello Osoro neguko triatloiko Espainiako Kopako lehen postuan dago proba bakar baten faltan. Aurreko asteburuan Bejarren (Salamanca) jokatutako proban hirugarrena izan zen eibartarra eta Txomin bere anaia 15. sailkatu zen. Bestalde, Delteco triatloi taldeko be-

deratzi lagun izan ziren zapa-tuan jokatutako Mungiako duatloian: Roberto Gartzia izan zen Eibarko lehena, Pablo Arakistain bigarrena juniorretan eta Juanjo Romero 3.a bere mailako beteteranoetan. Proba Lourdes Oiarzabalek eta Oier Ariznabarretak irabazi zuten.

## Igerilari gazteenek maila ona erakutsi zuten Legazpian

Jokin Bengoa, Izar Vicuña eta Miren Galdos 50 bularrean nabarmendu ziren, Paula Gabilondo eta Iraia Oruezabal oso ondo aritu ziren 100 bularrean. Laura Lahidalga eta Inge Erkiga 50 libretan lehendabizikoaren artean geratu ziren, 100 libretan Jone Ulaziak eta Jon Osak duten maila ona erakutsi zuten, eta 200 bularrean June Gomez, Inge Erkiaga, Peru Alberdi, Jon

Osa, Kai Zubiaurre eta Asier Sobronek gure ordezkarien txapelketa ona biribildu zuten. Badago etorkizuna Urbateko igerilarien artean, aipatutako benjamin eta alebin mailakoek ondo erakutsi zuten. Asteburu honetan, helduagoen txanda izango da, Urbatek ordezkariak izango baititu Pontevedran jokatuko den junior mailako Espainiako txapelketan.



June Martinez, Enara Zufiria, Irea del Rey, Eider Ojanguren, Ane Davila eta Paula Laskurain.

Arrasaten jardun zuten Infantil mailako seikotea.

## Herriko gimnasta gazteenek maila eman zuten Arrasaten

Ipurua Klub gimnasia erritmikoko taldearen 30 neska izan ziren Arrasaten jokatutako eskola mailako lehen fasean: alebin eta infantil mailakoek Gipuzkoako txapelketarako sailkatzen ahalegindu ziren bitartean, hantandako benjamin mailako lau taldeak erakustaldia egin zuten (maila horretan ez dago lehiaketarik). Infantil mailako taldea bosgarrena izan

zen sei arokin egindako ariketan eta, indibidualki, Enara Zufiria bigarrena izan zen, Ane Davila laugarren eta Paula Laskurain bosgarren. Nagor-naiak eta Prietok zuzentzen dituzten neskendako hurengo erronka Eibarraren izango da, martxoaren 15ean gurean jokatuko baitira Euskal Ligako I. fasea eta oinarrizko mailako Euskadiko txapelketa.



## Waterpolo partidu interesgarriak domeka eguerdian Orbean

Euskadiko infantil mailako selekzioak -neskena zein mutilena- izango dira domekan Orbean Urbateko beste bi taldeen aurka joka-



tzeko. 14.00etan hasiko den jaialdian, nesken selekzioak Urbateko infantil mailako taldeari egingo dio aurre, jarraian mutilen selekzioak Urbateko kadeteekin lehiatzeko.

Urbateko talde nagusiak gero eta zailago du mailari eustea: azken jardunaldian Gasteizeko Lautadarekin 11-7 galdu eta gero, asteburu honetan Getxori irabazi beharko dio derigorrez, bestela ia aukera barik geratuko delako. Infantil eta kadete mailako taldeak, bestalde, hurrengo faserako sailkatu dira liga amaitu eta gero.

## Squash-ean jokatzen hasteko aukera etzi

Eibarko Klub Deportiboko batzorde horretakoek antolatuta, Ipurua kiroldegian hastapen ikastaroa egingo da domekan. Ikastaroa doan da eta Phillip Marlowek eskainiko du. Domeka goizean ikastaroan parte hartu dutenen arteko txapelketa jokatuko da arratsaldean, ikasitakoa praktikan jaritzeko aukera izan dezaten.



## Debarrena irabaztetik gertu Euskaldun denboraldiko lehen proban

Mikel Hernandez bigarrena izan zen zapa-tuan Zumaian jokatutako Euskaldun denboraldi berriaren lehenengo proban. EDP taldeko Jon Irisarrik irabazi zion esprint estuan Soraluzeko txirindulariari, baina honek ondo erakutsi zuen astebete lehenago Ustaritzen jokatutako proban 6. postuan sailkatzea ez zela kasualitatea izan. Essor cicliste Basque azken proba horretan Frantziako talde onenek hartu zuten parte.



## berriak

### JUDO

Josu Olmos Kalamuako judokak urrezko domina eskuratu du junior mailako Euskadiko txapelketan. Etxebarriko kiroldegian jokatutako lehiaketa horretan, Nekane Muguruzak zilarrezkoa lortu zuen

### PILOTA

Klub Deportiboko alebinak zonaldeko eskola arteko finala jokatuko dute martxoaren 8a Oñatin. Hiru lagunen artean (Simon, Azkargorta eta Sanchez) aukeratu neharko dute zeintzuk osatuko duten bikotea. Gaur, bestalde, Udaberri torneoko azken jardunaldia izango da Astelenan, 19.15etan hasita. Hor Unamunzaga-Arribillaga bikoteak Iparraldeko ordezkarietako egingo die aurre.

### FOBALL ZALETUA

Durango eta Txoko, sailkapeneko lehenengo biek euren arteko partidua jokatuko dute domeka goizean, 09.00etan hasita, Unben. Durangok lau puntuko alde kentzen dio Txokori eta liga erabakita laga dezake.



## JOSE ANTONIO RODRIGUEZ ALVAREZ

(2014ko otsailaren 25ean hil zen, 59 urterekin)

*"Hil artian bizi egin bihar dala erakutsi deskuzu. Beti egongo zara gurekin"*

– ZURE FAMILIA –



# INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

31. zenbakia. 2014ko otsaila

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

# EUKI

FINKAK

 **API** 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**



Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)



HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Miguel Aginaga	Pisu altua. Paregabea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Balkoia, ganbara.	Galdetu
EIBAR	Errekatxu	3 logela. Gazteentzako egokia. Dena berriztuta. Jantzia.	132.000 €
EIBAR	Urkizu	Pisu altua. 3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Ganbara. Igogailua. Berrizteko.	163.000 € <sup>ADOSTEKO</sup>
EIBAR	Birjiñape	Oso polita. 2 logela, egongela, sukaldea. Balkoiarekin.	192.000 €
EIBAR	Errebal	Pisu handia. Berrizteko. 2 trastero. Kalefakzioa. Igogailua.	180.000 €
EIBAR	F. Calbeton	la berria. Ikusgarria. Apartamentua.	142.000 €
EIBAR	Zuloagatarren	Pisu altua. 108 m <sup>2</sup> . Ganbara. Igogailua.	250.000 €
EIBAR	Legarreko dorrea	Pisu altua. 3 logela. Balkoiarekin. Argitsua.	Galdetu
EIBAR	Untzaga	Pisu altua. 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, 2 bainu. Ganbara. Bistak.	Galdetu
EIBAR	Muzategi	2 apartamentu paregabe. Guztiz jantzita.	155.000 €-tik aurrera
EIBAR	Jardiñeta	Ikusgarria. dena kanpora. Eguzkitsua. Bistak.	Galdetu
EIBAR	Bista Eder	Pisu altua. Berrizteko. Igogailua. Eguzkitsua.	105.000 €
EIBAR	Urkizuko dorreak	3 logela, sukalde-egongela, 2 bainu, 2 balkoi. Igogailua kaletik.	192.300 €

Arragueta, 2 bis B-behea  
943 20 08 60

agencia  
inmobiliaria  
**Juaristi**  
A.P.I.: Rosa Juaristi

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak

rosa@inmobiliariajuaristi.com  
www.inmobiliariajuaristi.com

**HIGIEZINAK**  
**ARREGI**  
INMOBILIARIA

**Errebal, 20**

Tel./Faxa. 943 203 333    Mobila. 656 766 344  
www.inmoarregi.com

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95    Bidebarrieta 29

**INMOBILIARIA ESTUDIO**  
**PS XXI**

Higiezin-zerbitzuak  
eta Barne arkitektura

Tel./Faxa. 943 74 23 06    20870 ELGOIBAR  
www.inmobiliariapsxxi.com

**Larragest** 

INMOBILIARIA / ASEGURUAK

F. Calbetón, 22-24  
943 200 012  
690 610 715



Atzoz geroztik martxan dago Debarreneko Mankomunidiak Azittaingo industrialdian zabaldu daben Garbigune barrixa. Behin baiño gehixagotan zalantzatan geratu gara, egunero erabiltzen ditudun kontenedorietan jasotzen diranetatik kanpora, hondatutako zeozer zaborretara botatzeko ordua aillegatzian: "Zer egin bihar dot inpresora zaharrarekin? Eta fluoreszentiarekin? Beste barik zaborra batzeko edukiontzixan sartu bihar dot ala badago holakuak batzen daben tokiren bat?". Aurrerantzian askoz be errazago topatuko dogu holako galderendako erantzuna, inauguratu barri daben Garbiguneak edozelako hondakiñak gaika batu eta sailkatzeko gune aproposak dakaz-eta.

**H**ondakiñen gaikako bilketarako azpiegiturak sendotzeko asmuari jarraituta ipiñi dau martxan Eibarko Garbigunea Debarreneko Mankomunidiak eta bertako arduradunak kudeatzen daben garbigune-sarea osatzera dator, aurretik martxan eguazen Elgoibarko, Ermua-Mallabiko eta Deba-Mutrikuko instalaziñuekin batera. Azittaingo industrialdian, Altxubarren frontoia baiño pixka bat gorago zabaldu



# Garbigunea

## Lagun barrixa ahalik eta gehixen birziklatzeko bidian

barri dittuen instalaziño barrixak 2.000 metro karratuko azaleria hartzen dabe eta martxan ipiñi ahal izateko 852.000 euroko inbetsiñua egin dabe (2012xan, lehelengo fasian 345.000 euro eta hurrengo urtian, bigarren fasian 507.000 euro).

Eguaztenian, Garbigunea jendiarendako zabaldu baiño egun bat lehenago, prensaren aurrian aurkeztu zittuen instalaziñuak, bertan emongo daben zerbitzuaren inguruko azalpenekin batera. Inauguraziño-ekitaldixan Arcadio Benitez Mankomunidadeko presidentiarekin batera, Miguel de los

Toyos alkatiak eta Iñaki Errazkin Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako diputauak hartu eben parte. Horiekin batera, Garbigunea bertatik bertara ezagutu nahi izan eben eskualdeko hainbat alkate eta ordezkari politikoko ugari batu ziran.

Arcadio Benitezek esplikau ebenez, "Garbiguneak emoten daben zerbitzua duan da eta herritar guztiak erabilli leikie, asmua hori da-eta. Eurekin batera, igeltseruak eta neumatiko-ekoizliak erabiltzia gustauko litxakigu". Garbiguneari esker, gure eskualdeko birziklapen-tasak %5 gora egingo dabela aurreikusten dabe: "Debarreneko Mankomunidiak martxan dakan garbigune-sarean urtebetian 2.000 tona hondakin jasoko ditudugu eta, horri esker, gaikako bilketa-tasak %32xa gaintituko dau. Instalaziño barrixa eskualdeko hondakiñen tratamendurako azpiegitura benetan garrantzitsua izango da eta birziklapenaren aldeko gure politikak indartu eta bultzatzia ahalbidetuko dau".

Miguel de los Toyos-ek zen-

Kontenedoreen Distribuzioa Distribución de Contenedores			
1	Inausketa Pods	Kartola Cartón	2
3	Handiak Voluminosos	Taxtarrak Chatarra	4
5	Jostailuak Juguetes	Lerro laua Linea fría	6
7	Gurpileak Neumáticos	Olita hondakinak Escombro	8
9	Stalkatutako gordailuak Habillos reciclables	Egurra Madera	10
11	Belra laua Vidrio Plano	Lerro hotza Linea fría	12

bakixeri baiño datu kualitatu-bueri arreta gehixago ipiñi zetsazen: "Herrittarreri birziklatzeko eskatzen detsagu behiñ eta barriz, baiña batzuetan ez detsagu horretarako baliabiderik emoten. Horregaittik, herrittarreri euren hondakiñak birziklatzeko aukeria emoten daben Garbigune honen moduko azpiegiturak zabaltziak aparteko garrantzixa dakala pentsatzen dot. Eta, horrekin batera, eskualdeko birziklatze-tasa igotzeko ahalegiñ horre-



Errazkin, Benitez eta De los Toyos zintia mozten. SILBIA HERNANDEZ



tan beste pauso bat aurrera emotia eragingo dau".

Iñaki Errazkiñen esandakuari jarraituta, "Foru Aldundixak arlo honetan hartutako konpromisuetako bat, hain zuzen be, Garbigune sarea hedatzen juatia dago eta, ildo horretan, gaur inaugurau dogun hau aurretik hasitta eguan bidian beste pieza

bat da. Hondakiñ eta birziklatze kontuetan Europatik ezarritakuen artian, bestiak beste, birziklagarria dan guztia birziklatzen ahalegido biharko genduke. Gipuzkoan zabalik dugu 23 garbiguniak, duda barik, urte bi barru birziklatze-tasa %60ra aillegatzeko dakagun helburua betetzen lagunduko deskue".

### Hondakin berezixaguak

Argitu ebenez, Garbiguneak ez ditto oiñ arte kalia hondakiñak batzeko duguazanak ordezkatu. Gehixen jota horrenda laguntza osagarria emongo dau. Izan be, hondakin batzuk, daken tamaiñuarengaittik edo bestelako ezaugarriak izatia-gaittik, ezin leikez kalia da-

guazen edukiontzixetara bota, horrendako egokixak ez dira-eta. Aurrerantzian, baiña, Garbiguneari esker hórrek gaika bildu eta gero birziklatzeko aukeria egongo da. Bestiak beste, holakuak jasoko dittue Garbiguneari: etxian egindako konponketa lan txikixetan sortzen diran hondakiñak, plastiko birziklagarriak, beira laua, kartoizko enbalajiak, tamaiña haundiko gauzak, iñausketa eta lorezaintzako hondarrak, neumatikuak (gomia bakarrik), tresna elektriko eta elektronikuak eta abar. Etxeko hondakin berezixak jasotzeko tokixa be bada: telebisiñuak, auto-bateriak, olixua, fluoreszentiak, tinta-tonerrak eta kartutxuak, pilak, pintura...

Bestalde, batez be herritar arruntak erabiltzia nahi dabenez, Garbigunera eruan leikiazan hondakiñeri muga ipiñi detse: partikularrak astian gehixen jota 2 metro kubiko eta 250 kilo hondakin lagatzeko aukeria eukiko dabe. Obra-hondakiñekin, baiña, salbuespena egingo dabe: holakuetan, astian 500 kilo lagatzeko aukeria emongo detse. Bestalde, deskargatzeko permisua bakarrik 3.500 kilotik beherako baimendutako gehixeneko pisua daken ibilgaillueri emongo detse. Garbiguneari arduradunak egingo detse harrera erabiltzaillieri eta bihar dittuen azalpenak eta bestelakuak be bihargiñ horrek emongo ditto. Garbiguneari atiak astian sei egunetan zabalduko ditto: astelehenetik barixakura, 09.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 18.00etara. Zapatuetan 09.00etatik 13.00era.

## ARCADIO BENITEZ, MANKOMUNIDADEKO PRESIDENTIA

### "Garbigunietan 1.300 tona batzia aurreikusit dogu"

- Esku artian darabizuen datuen arabera, Garbiguneari esker gehixago birziklatuko dogu, ezta?

Ikerketak eta Mankomunidadearen aurreikuspenak diñue- nez, oiñ arte zabalik duguazan garbigunietan urtian 700 tona hondakin batzen dira, baiña kopuru horrek gora egingo dau, urtian 2.000 tona hondakin batzera aillegatzera iño. Urtebeteko tartian oiñ arte baiño jasotzia espero daben 1.300 tona hórretatik 1.050 tona Azitaiñen batu-ko dirala aurreikusit dogu eta gaiñontzeko 250 tonak, barriz, Elgoibar, Ermua eta Mutrikuko garbigunietan. Datu batzuk azpimarratzien, eskualdeko garbigune saria osatzen daben instalaziñuetan urtian 325 tonelada egur, 250 tonelada obra-hondakin, 200 tonelada iñausketa eta lorezaintza hondakin, 120 tonelada txatarra, 115 tonelada bolumen haundiko hondakiñ eta 85 tonelada neumatiko jasoko dira. Gauzak holan, gure mankomunidadeko birziklatze porzentajiak nabarmen egingo dabe hobera. Batzia espero dittugun 1.300 tonelada gehixago horrek, mankomunidadearen sortzen dittugun hondakin guztien %5 osatzen dabe (2014rako aurreikuspenak Debabarrenian 26.200 tonelada hondakin batu-ko dirala diño). Eta gaikako bilketari begiratzen badetsagu, 2013an lortu dogun %27'88 horrek gora egiñ eta %32xa gainditzia ekarriko dau.



- Birziklatze tasen igoeria aitatu, oin dala gitxi, urtia hasi eta segiduan, hondakin organikuendako edukiontzi marroia herriko etxe gehixeneta-riño sartzia lortu dozue...

Edukiontzi marroia erabiltzen ez dabeneri zaborren tasa birziklatzen dabeneri baiño gehixago kobrauko jakuela jakittiarekin batera, orduan hasi ziran kontenedore marroi, giltz eta bestelakuen billa juaten gehixenak, gauzak diran moduan. Baiña hori zan gure hasierako asmua, gitxiago pagatzien jendiak kontenedore marroia erabiltzeko izena emotia, eta alde horretatik gure helburua argi eta garbi bete da. Izan be, neurri hori hartzia erabagi genduanian ez genduan nahi zerga bittartez diru-gehixago batzia, jendiak ahalik eta gehixen birziklatzera bultzatzia baiño.

- Eta horri esker biztanlien %90 inguruk ekimenarekin bat egin dabe. Baiña birziklatzeko konpromisua beteko ete daben jakittekodurik badago?

Jakiña, beste toki askotan egitten daben moduan, geuk be birziklatzen dabeneri jarraipena egingo detsagu, hondakin organikuak birziklatzen dabizen ala ez kontrolatzeko. Badagoz horretarako moduak eta baliabidiak, bestiak beste txartel, txip eta holakuak erabillita.



**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33



**ZULOAGATARREN, 7**





## FERMIN ETXEGOIEN (idazlea) "Fisikatik metafisikara egindako jauzia da liburua"

*Martitzenean, martxoaren 4an, 19.00etan hasita, Harixa Emoten literatur-tertulietako saio berria izango da Juan San Martin liburutegian. Oraingoan Fermin Etxegoien idazlearen "Zinegotzia" liburuaren inguruan jardungo dute. Liburu horretan egileak Euskal Herri independentea irudikatzen du, iazko ekainaren 4an kokatutako lanean.*

### - Alde handia dago zure lehen liburutik bigarren honetara, ezta?

Bai. Lehen pertsonan idaztetik hirugarren pertsonan idaztera pasatu naiz: nire mundutik irten eta beste haragi batean dagoen mundua azaleratzen ahalegindu naiz. Hor dagoeneko jende arrunt euskalduna dago, hizkuntza kezka ez den esparru batean. Hala ere, protagonistak bere burua olatu politikoaren erdian ikusiko du. Azken lan honek drama klasikoak erabiltzen dituen hiru ekinaldi ditu: lehenengoan arlo sozio-politiko nabarmentzen da, bigarrenan familiar konstelazioa nagusitzen da, eta hirugarrenean desenlazea ematen da, alde pertsonalaren bilakaeraz.

### - Zer bilatu nahi izan duzu "Zinegotzia" liburuarekin?

Maila pertsonalean egindako ahalegina izan da, ikusteko eguneroko bizi dugun horretan, eguneroko mekanikarekin, zenbateraino usaindu dezakegun errealitatearen atzean dagoena. Fisikatik metafisikara egindako jauzia da, azken batean. Eguneroko errepikatzen diren abiatuta, maila sozio-politikoan sartu nahi izan dut eta alderagarritasunari erreparatu, mozorrogarritasunari, eta inguruko kontzeptuei. Norberaren bizitza zenbateraino den mekanikoa ikusi eta ideologia ere kontuan hartuta.

### - Zelan ikusten dituzu horrelako literatur-tailerrak?

Oso probetxugarri direla deritzot, aberatsak guztiz. Ziurtasunarekin jokatzeko duzu: badakizu liburua irakurri dutela, interesa erakutsi dizute. Ulergarritasuna, modu horretan, ez da bide bakarrekoa eta harreman horretatik ateratzen den guztia egiazkoa da.

### - Liburua lehenago amaitzea espero zenuen, baina luzatu egin zitzaizun, ezta?

Errealitateari hain lotua izan beharrak harrapatu egin ninduen. Hor badago exigentzia bat eta, Katalunian sortu den dinamika soberanista ia bapatekoa izan den moduan, hemen ere halako zezker gerta zitekeela-eta, atera dezagun esan nion nire buruari.

### - Liburuak izan duen emaitzarekin pozik zaude? Zelako kritikak jaso dituzte?

Badirudi askorik ez dudala asmatu, kritika aldetik-eta negatiboak ere izan direlako asko. Askotan zuri oharkabeen pasatzen zaizkizu hainbat gauza, baina jakin behar duzu bezeroak arrazoa izango duela. Aurreko liburuaren antzerako lana eskatu zidan azken honek, ez da arin egindako zezker izan: 2-3 urte behar izan ditut egiteko; baina, badakizu, talentuaren arabera... Hala ere, ondo saldu da, aurrekoaren ondoan motz geratu arren.



## Koko-dantzek jai baserrik kalera jaitsi zuten

Aurreko zapatuan irten ziren koko-dantzan eta koko-eskean Kezka dantza taldearen eskutik osatutako koko-konpartsako kideak. Aurten Mandiola auzoa osatzeko falta zitzaizkien lau baserriak eta Aginaga aldekoak bisitatu zituzten koko-marruen konpartsakoek, baina horren aurretik Merkatu Plazan zeuden baserriarentzat lehen agerraldia egin zuten. Eguraldia lagun, goizean goiz hasi eta arratsaldera arte ederto ibili ziren batetik bestera, baserriak baserri eskean eta dantzan. Eta iluntzean, berriz, herriko erdialdeko kaleetara jaitsi eta, animatu ziren guztien laguntzarekin eta Mauxitxa txarangakoek girotuta, kalejira egin zuten Toribio Etxebarria, Zuloagarren eta Untzaga inguruan.



## Zarzelaren antologia datorren barixakuan

Martxoaren 7an, 20.30etan Coliseo antzokian Antologia de la Zarzuela ikusteko aukera izango da, udaleko Kultura sailak eta Ozenki elkarteak antolatuta. Ikuskizunak zarzuela eta opera erreperitorio zabala batuko ditu taula gainean eta Espainian oso ezagunak diren bakarlariekin batera (besteak beste, Miren Urbieta sopranoa, Helena Orcoyen sopranoa, Javier Agulló tenorea eta Andres del Pino baritonoa) Sostoa abesbatzak eta Donostiako Sotto Voce soka-orkestrak jardungo dute, Josean Garciak zuzenduta. Ordu bi inguru iraungo duen emanaldirako sarrerak 25 eurotan eros daitezke, zuzenean Coliseoko txarteldegira joanda (astelehenean 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara) edo interneten, Kutxabank-en webgunean.



## Aratosteek asteburua beteko dute

Atzo umiak eta euren koko-jantzia protagonista izan ziren, baina gaurtik hasita eta martitzena arte, Aratosteak ospatu eta koko-jantzeko asteburu bete-betea daukagu aurretik. Urtero legez, gaur Barixaku Erregularra izanda Hungariako kaldereorok beteko dituzte kaleak euren abesti eta dantzekin. 20.00etan Urkizuko parkean batu eta Untzagaraino kalejiran igoko dira eta, bertara ailegatu, Aratoste pregoia irakurriko du Irune Jaiok, aurtengo kartel irabazlearen egileak. Gaueko 23.00etatik aurrera, berriz, herriko hainbat DJ-ren eskutik jarraituko du jaiak Untzagako karpan.

Eta bihar karpa barruko animazioak 12.00etatik aurrera jarraituko du, baina San Kristobalگو jai batzordekoen eskutik. Besteak beste ardo-dastaketa antolatu dute. Goiza agurtu baino lehen, Aratosteetako lehiaketetako irabazleek saria jasoko dute. Arratsaldean, 17.00etan hasita koko-jantzi lehiaketa egingo dute As Burgas Galiziako Etxean. 18.00etatik 21.00etara, berriz, Ustekabe fanfarreak kalejiran kaleak alaituko di-



**Pertsonaia -eta animalia- batzuk ez dute kale egiten kaldereroetan.** LEIRE ITURBE

tu. Ez da hori kalejira bakarra izango, 12.00etatik 14.00etara bitartean Rockaleanek ere hala egingo du-eta, Untzagatik abiatuta. Eta karpan, 18.30etan umeendako berbena hasiko da Luhartz taldearekin. Afaltzeko etenaldia egin eta gero, gaueko 23.00etatik aurrera Luhartz taldea karpara bueltatuko da, 03.00ak arte dantzaldia eskaintzeko.

Aratoste Domeka 11.00etan hasiko da, Usartz Txistulari Bandakoen kalejirarekin. Arratsaldean, 17.00etatik aurrera... eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako play-back lehiaketan jardungo dute karpa barruan izena eman duten 16 taldeek. Eta lehiaketa amaitu eta jarraian, 18.30etan umeendako diskoteka girotuko du DJ Arnok. Aurtengo Aratosteei agur esateko unea Aratoste Martitzenarekin batera ailegatuko zaigu. 17.00etatik aurrera umeendako jolasak egingo dira Untzagan, Astixaren eskutik. Eta 18.30etan, trikilariek lagundutako kalejira eta sardinaren entierri txikia egin eta gero, DJ Arnoren erritmorra agurtuko dugu koko-jantzi jai, datorren urtera arte.



**Aurten 16 taldek eman dute izena domeka arratsaldeko play-back saioan parte hartzeko.** KOLDO MITXELENA

## laburrak

### ERAKUSKETA UNTZAGAN

Gaur 19.30etan Abundio Maestoren egur-tailla eta margo erakusketa zabalduko dute Untzagako jubilatuek. Martxoaren 16ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara.

### IDOIA IZENEKOEN TXANGOA

Uztailako lehen domekarako (6rako) Idoia izenekoentzat irteera antolatzen dabilta. Txangora joan nahi dutenek Idoia Bergaretxe estetika zentruan edo Pissa oinetako dendan eman dezakete izena.

### BERBA LEHIAKETA

Udal Euskaltegiak eta AEK-k udalaren laguntzarekin antolatu dute euskerazko berba bikoteen lehiaketara aurkeztutako proposamenei interneten, [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) webgunean botoa emateko epea domekan (martxoaren 2an) amaituko da. Boto gehien jasotzen duen bikoteak irabaziko du lehiaketa.

### MEDITAZIO TAILERRA

Datorren asteko barixakuan (martxoaren 7an), meditazioa ezagutu eta probatu nahi dutenentzat dohaineko tailerra eskainiko dute Bidebarrieta kaleko Reiki zentruan (60. zenbakian), 20.00etan hasita. Izena emateko edo argibideak eskatzeko 618202704 telefono zenbakira deitu.

## ESTHER MONDRAGON SANCHEZ en

(Valentin Unzeta Larreategi "Corazón" -en alarguna)

**2. URTEURRENA (2012-III-3)**

**Bere aldeko meza ospatuko da hilaren 1ean (zapatuan), 19.00etan hasita, San Andres parrokan.**

**ZURE FAMILIA**



### ○ Euskarazko haur eskolen eskaera

Iruñeko euskalgintzak martxoaren 3tik 18ra bitarte kanpaina jarriko du martxan euskarazko haur eskolen eskaera zehazteko datuak jasotzeko. Matrikulazio epe hori baliotuko dute euskalgintzako hainbat taldek eta sindikatuk ere euskarazko haur eskolen eskaera zenbatekoa den zehazteko. Hiriburu horretan dauden hemezortzi eskoletatik hamahiru dira udalarenak; lau dira gaztelaniaz ingelesezko ekintzekin, zazpi gaztelania hutsean, eta bi bakarik euskaraz. Bi horiek, gainera, auzo berean dira. Txantrean, Nafarroako Gobernuak kudeatzen ditu beste bostak, denak gaztelaniazkoak.

## euskararen txokoa

### ○ Aro berria abian Jakin aldizkarian

Jakin aldizkaria fundazio bihurtu ondoren, zuzendaritza talde berri bati eman go diote lekukoa egungo lau arduradun nagusiek. Gainera, formatua eta web-gunea berrituz, aro berri bat jarri dute abian 200. zenbakiarekin. Jakinek 58 urte beteko ditu aurten eta, sortu eta urte gutxitara, hasi ziren Torrealдай. In-txausti, Azurmendi eta Agirebaltzategi haren gidaritzaren erantzukizuna bereganatzen. Gaur egun 2.000 inguru harpidedun ditu Jakin aldizkariak eta 2.300 aleko tirada. Urteko 60 euroren truke, paperezko aldizkaria jasotzeko eta web-guneko edukia jasotzeko aukera dago.



Ane Sarasua idazkari nagusiak egin zuen aurkezpena. SILBIA

## Antzerkirako sarreraren salmenta hasi da

Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurre salmenta erritmo onean joan zen zapatutik astelehenera bitartean, 2.300 sarrera inguru saldu zituzten-eta. Hala ere, lan gehienak ikusteko arazorik ez da izango, aurre salmentan bakarrik hiru



Aurten ilada txikiagoak sortu dira. LEIRE ITURBE

antzezlantarako sarrerak agortu ziren-eta: "El interprete" eta "Conversaciones con mama" lanaren funtzio bietakoak. Egitaraua osatzen duten beste 18 ikuskizunetarako sarrerak funtzio bakoitza baino lehen, 19.00etatik 20.00etara txarteldegian erosteko moduan ipiniko dituzte eta, horrez gain, aurten interneten ere, Kutxabank bitartez erosteko aukera dago. Bestalde, egitarauan azken or-

duko aldaketa egon da: La Zaranda taldearen "El regimen del pienso" antzezlana apirilaren 7an eskaintzeko zen, baina funtzioa egun bi lehenago, apirilaren 5ean izango da, 20.30etan Hezkuntza Esparruan. 37. Antzerki Jardunaldien egitarauko lehen antzezkizuna martxoaren 8an taularatuko du Markeliñek: "Kapsulak" umeendako lana Coliseoan eskainiko dute, 17.00etan (5 euro).

## Udaberrian 12 ikastaro, UEU-ren eskutik

Eguaztenean aurkeztu zituzten Markeskuan UEUk udaberriko prestatu duen ikastaro eskaintza. Guztira, 12 ikastaro antolatu dituzte, batzuk on line egiteko eta besteak, berriz, Eibarren eta Iruñean eskaintzeko. Matrikula-epea zabalik dago eta interesa dutenek [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean aurkituko dute matrikula orria zein ikastaro bakoitzaren inguruko informazio zehatza. On line bidez egitekoak "Nola sortu nire PLEa, ikasteko ingurune pertsonala", "Euskal Herriko oroimen historikoa", "Probatu zure euskara-maila eta probatuz trebatu" eta "Moodle 2.3-ren erabilera aurreratua" dira; Eibarren, Markeskua jauregian emango dituztenak, berriz, "Argazki-kontakizuna. Istorioak garatzeko estrategiak", "Ahots-teknika ikastaroa: kantua sentitu, jolastu, gozatu", "Eskola libre eta demokratikoak: gizarte aldaketarako tresna eta gako", "Gaitasun sortzaileari ateak irekitzen", "Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen" eta "Aljebra lineala Mathematica programa erabiliz"; eta Iruñean eskainiko direnak, "Jendaurreko komunikazioan trebatzeko tailerra", "Haur-psikologia: gaurko haurrak etorkizuneko helduak".

## Ipuin kontalaria Portalean

Gurasoak Berbetan egitasmoko partaideen seme-ala-bentzat antolatutako ipuin kontalari saioan gustora egon ziren etxeko txikiak domekan. Itziar Gameroren ipuinak adi-adi entzun zituzten Portaleko areto nagusian bildu ziren umeek. Euskera praktikatzeko taldeetan elkartzen dira Gurasoak Berbetan-eko gurasoak eta astean behin elkartzeaz gainera, bestelako ekintza osagarriak ere eskaintzen zaizkie, tartean joan den domekako saioa.



Itziar Gameroren interpretazioa. LEIRE ITURBE



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, UNAI, haraiñegun bost urte egin zenduaz-en-eta. Familixaren partez.



Zorionak, LEIRE, domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Familixaren partez.



Zorionak, IRENE, gaur 9 urte betetzen dozuzelako. Muxu haundi bat familixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, txapeldun!, domekan zortzi urte egingo dozuz-eta. Aitta, ama eta Egoiren partez.



Zorionak, IKER, haraiñegun urtetxua egin zenduan-eta. Muxu haundi bat ama, aitta eta familixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIARA Muñoz Aizpurua, astelehenian urtiak egingo dozuz-eta. Familixaren eta, batez be, zure loiba Arianeren partez.



Zorionak, EKI, zure 5. urtebetetzian. Askio maitte zaittugu, txapeldun! Familixaren eta laguneren partez.




Zorionak, UNAITXO, martitzenian lau urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi-haundi bat zure gurasuen partez.



Zorionak, JOKIN, gaur 11 urte betetzen dozuzelako. Etxekuen eta, batez be, Unaxen partez.



Zorionak, ODILE, atzo bi urte egin zenduan-eta. Familixaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, PABLO, atzo bost urte egin zenduazelako. Eta ongi etorri, ANE, hillaeren 9xan jaixo ziñalako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JON Kortaberria Bedaio, hillaeren 20xan bi urte bete zenduan-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ENARA, domekan zazpi urte beteko dozuz-eta. Ondo-ondo ospatu! Patxuak etxekuen eta, batez be, Enekoren partez.



Zorionak, AMETS, astelehenian lau urte egingo dozuzelako. Ondo pasa, pirata!! Familixa guztiaren partez.

## hildakoak

- Jacinto Alkorta Ansorregi. 91 urte. 2014-II-20.
- Josefa Egaña Eizagirre. 92 urte. 2014-II-20.
- Juan Carlos Sarasua Uribarri. 75 urte. 2014-II-21.
- Maria Gabilondo Iturralde. 76 urte. 2014-II-21.
- Natividad Elkoroiribe Alberdi. 83 urte. 2014-II-22.
- Nemesio Lopez Sanchez. 83 urte. 2014-II-22.
- Crescencia Zabala Beaskoetxea. 91 urte. 2014-II-23.
- Anton Artamendi Mugerza. 80 urte. 2014-II-23.
- Fermin Sualdea Santin. 78 urte. 2014-II-24.
- Jesus De la Fuente Carro. 69 urte. 2014-II-24.
- Jose Luis Fernandez Zubimendi. 91 urte. 2014-II-24.
- Manuel Cordon Rodriguez. 78 urte. 2014-II-25.
- Jose Antonio Rodriguez Alvarez. 59 urte. 2014-II-25.
- Francisca Areitioaurtena Urizar. 86 urte. 2014-II-26.

## jaiotakoak

- Libe Alberdi Etxabe. 2014-II-10.
- Ibai Tongiani Blanco. 2014-II-12.
- Sara Ait Bouazza. 2014-II-14.
- Uma Moreno Del Barrio. 2014-II-18.
- Ibane Padilla Carretas. 2014-II-22.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
1ean: 17.00, 22.30  
2an: 17.00, 20.00  
3an: 20.30

**"Mandela. Del mito..."**  
Zuzendaria: Justin Chadwick



**(2 ARETOAN)**  
1ean: 17.00, 19.45, 22.30  
2an: 17.00, 20.00  
3an: 20.30

**"Pense que iba a haber..."**  
Zuzendaria: Vicente Galardi



**(ANTZOKIAN)**  
1ean: 19.45, 22.30  
2an: 20.00  
3an: 20.30

**"12 años de esclavitud"**  
Zuzendaria: Steve McQueen



**(ANTZOKIAN)**  
1ean: 17.00  
2an: 17.00

**"El caballero Don Latón"**  
Zuzendaria: Thom Bodestein



## BARIXAKUA 28

### KOKO-JANTZI LEHIAKETA

**17.30.** 3 eta 14 urte bitarteko umeendako koko-jantzi lehiaketa. El Corte Inglesean.

### BARIXAKU ERREGULARRA

**20.00.** Kaldereroen kalejira. Urkizuko parketik Untzagara.

**20.30.** Kaldereroen abestiak eta dantzak.

**21.00.** Pregoia.

**23.00.** Herriko DJ-en emanaldia. Untzagan.

## ZAPATUA 1

### ARATOSTE ZAPATUA

**12.00.** Animazioa karpan eta ardo dastaketa, San Kristobalگو jai batzordearen eskutik.

**12.00-14.00.** Kalejira, Rockalean-ekin. Untzagatik abiatuta.

**13.30.** Aratosteetako lehiaketetako irabazleei saria banatzea. Untzagan.

**17.00.** Koko-jantzi lehiaketa, As Burgas Galiziako Etxean (Urkizun).

**18.00-21.00.** Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.

**18.30.** Umeendako berbena Luhartz taldearekin. Untzagan (karpan).

**19.00-21.00.** Untzagatik abiatuta Rockalean kalejira.

**23.00-03.00.** Dantzaldia Luhartz taldearekin. Untzagan (karpan).

## DOMEKA 2

### ARATOSTE DOMEKA

**11.00.** Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.

**17.00.** Play-back lehiaketa LH-ko ikasleentzat. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta.

**18.30.** Umeendako diskoteka, DJ Arnorekin. Untzagan (karpan).

## ASTELEHENA 3

### IKASTEN

**16.00.** Sendabelarren Foroa: udaberri-lorea eta azak. Portalean.

## MARTITZENA 4

### IKASTEN

**10.00.** Hitzaldia: "Los libros diferentes, ¿por que? Mucho mas que un libro y albumforum para no tan niños", Sara Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.

### ARATOSTE MARTITZENA

**17.00.** Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Untzagan.

**18.30.** Sardinaren entierro txikia, trikitilariak lagunduta. Umeendako diskoteka, DJ Arnorekin. Untzagan.

### IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

**19.00.** Euskerazko irakurketa kluba: Fermin Etxegoien, "Zinegotzia" lanari buruz. Juan San Martin Liburutegian.

## EGUAZTENA 5

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Derechos pendientes de la mujer". Untzagako jubilatuek etxean.

### TAILERRA

**18.30.** "Armony-aren hastapenak", Adhara Zentruaren eskutik. El Corte Inglesean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## EGUENA 6

### IKASTEN

**10.00.** Hitzaldia: "Los libros diferentes, ¿por que? Mucho mas que un libro y albumforum para no tan niños", Sara Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.

### ODOLA ATERATZEA

**18.30.** Odol-emaileei odol ateratzeko saioa. Ambulategian.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Como relacionarnos con adolescentes en familia" hitzaldi irekia, DBH-ko ikasleen gurasoentzat. Aldatze ikastetxean.

### TAILERRA

**18.30.** "Zaindu zaitez, azal hidratatua eta osasuntsua", ISDIN etxearen eskutik. El Corte Inglesean (aretoan).

### HITZALDIA

**19.00.** "Eraikin industrial hibridoak Eibarren. Erabilera industrialetan dentsitatea berreskuratzeko joera eta ereduak", Berreibar-en eskutik. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Entsegua. Portalean.

## ikastaroak

### ✓ Photoshop argazkilarientzat (oinarrizkoa)

**Noiz:** Martxoaren 10, 12, 17 eta 19an (19.30-21.30).  
**Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarteak.

### ✓ Fandango eta arin-arin

**Noiz:** Martxoaren 4tik maiatzaren 20ra. Martitzenero, 19.00-20.30, Kultur. **Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarteak.

### ✓ Meditazio-tailerra

**Noiz:** Martxoaren 7an (barixakua), 20.00etan. **Non:** Reiki zentruan (Bidebarrieta, 60). **Izen-ematea:** 618202704.

### ✓ Emakumeentzako Tao sendagarria (hilerio)

**Noiz:** Martxoaren 15ean (zapateria), 17.00-20.00. **Non:** Andretxean (Zezenbide). **Izen-ematea:** 678068959 eta 943700828 / asoc.defibel@gmail.com helbidera idatzita.

### ✓ UEU-ko udaberriko ikastaroak

**Izen-ematea:** 943821426 / www.ueu.org

## HOROSKOPOA

### ARIES

Beste pertsona bat konprometituko duzu eta ez da pozik egongo zurekin. Zurekoa zara eta horrek eragingo du egoera hori.

### TAURUS

Zorraz kitatzeko ordua heldu da. Eskerrak lagunekin dituzula zor horiek; bestela, ezer barik lagako zintuzke bankuak. Aurreztu!!!

### GEMINI

Lanerako gogo gutxi izango duzu eta ez da une egokia alperkerietan ibiltzeko. Pilak kargatu behingoz eta tira lanera!

### CANCER

Urduri ipiniko zara tontakeria batengatik: ez zara ausartuko egoerari aurre egiten. Ez zaituz holan jarri, ez da hainbesterako.

### LEO

Lagun berezi hori kalean ikusi eta asko lotsatuko zara. Gorri-gorri jarriko zaizu aurpegia, nora begiratu jakin barik...

### VIRGO

Jairako gogoa izango duzu: ondo pasatu, lagunekin barrekin egin, gorputza mugitu! Biharamuna izango da okerrena zuretzat!

### LIBRA

Lagun biren arteko liskarraren erdian sartu beharko zara eta zure papera berebizikoa izango da dena konpontzeko.

### SCORPIUS

Gauzei, txikiak badira ere, euren zentzua hartuko diezu eta baloratzen jakingo. Gauza guztien atzean lan askotxo dago.

### SAGITTARIUS

Edozer gauza entzunda ere, barrezka hasiko zara. Umorea izango da nagusi eta barrerako gogoa edukiko duzu.

### CAPRICORNIUS

Nortasun handikoa zara eta horrek lagunduko dizu astelehenean gertatuko zaizun gauza batean. Adorea erakutsi!


### AQUARIUS

Intentzio onenarekin egingo duzu, baina laguna izorratzeko! Trankil, berak baitaki ona zarela eta ez duzula nahita egin.

### PISCIS

Atzera begiratu eta gauzak zenbat aldatu diren konturatu zara. Eta orain? Aurrera jarraitzeko gogo biziz egongo zara, eh?





## erakusketak

- ✓ **Martxoaren 2ra arte**  
**KARLOS MARTINEZ B-REN** "Ordem e progresso" proiektuaren inguruko erakusketa. *Portalean.*  
**VICENTE IRIONDOREN** margo erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Martxoaren 16ra arte**  
**ABUNDIO MAESTROREN** talla eta pintura erakusketa. *Beleko tabernan (Bista Eder, 2).*
- ✓ **Martxoaren 20ra arte**  
**IBONE GARCIAREN** margo erakusketa. *Beleko tabernan (Bista Eder, 2).*
- ✓ **Martxoaren 31ra arte**  
**PEDRO ARRIOLAREN** "Japon" argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*  
**ANTONIO VILLANUEVAREN** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*  
**ANDRES LOZANOREN** "Aste Santua" argazki erakusketa. *Depor tabernan.*  
**CARLOS TRUKOREN** margo erakusketa. *Deika tabernan (San Juan, 1).*
- ✓ **Apirilaren erdialdera arte**  
**VANESSA ATECA-REN** margo erakusketa. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*

## lehiaketak

- ✓ **XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa**  
**Gaia:** Aratosteak. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkarteak (astelehenetik eguenera 17.00etatik 19.00etara), **apirilaren 1erako.** **Sariak:** 160 euro, 100 euro eta 60 euro.
- ✓ **Toribio Etxebarria Sariak**  
**Lanak aurkeztea:** [www.toribiochevarria.com](http://www.toribiochevarria.com)

## farmaziak

- ✓ **barixakua 28**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **zapateria 1**  
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **domeka 2**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **astelehena 3**  
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **martitzena 4**  
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **eguztena 5**  
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
- ✓ **eguna 6**  
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **barixakua 7**  
 EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)

**2014 urte osorako  
GAUEZ  
Azkue (T. Etxebarria, 4)**

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 15.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13.

**DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

		5		1		2	9
			5	6			
9					5	6	
6		7	1				
	8					7	
				2	4		3
	4	8					5
			3	5			
5	1		4		2		

## SUDOKUA

3	2	6	8	4	7	9	1	5
4	5	9	6	1	2	7	8	3
1	7	8	5	9	3	6	2	4
7	3	4	9	8	1	2	5	6
6	8	2	4	3	5	1	7	9
5	9	1	2	7	6	3	4	8
9	1	7	3	5	4	8	6	2
2	4	3	1	6	8	5	9	7
8	6	5	7	2	9	4	3	1

AURREKOEN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Amañan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoi itxia. Berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 607-808827.
- Babes ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 75 m<sup>2</sup>. Trasteroa eta garajearekin. Tel. 655-706983 eta 647-720850.
- Pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia eta ganbara. Kalefakzioa. Leiho berriak. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Tel. 671-439939.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 625-422170.
- Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 602-838236.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-882295.
- Emakume arduratsuak pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 679-910991.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Mercedes Benz, E-320 CDI klasea salgai. 224 cv. 118.300 km. 2007 urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
- Lokala alokagai Urkizun. 70 m<sup>2</sup>. Tel. 692-714685.
- Garajea alokagai Abontzan. 15 m<sup>2</sup>. Tel. 619-418315.
- Lokala alokagai Isasi kalean. 18 m<sup>2</sup>. Estudioa ipintzeko edo klaseak emateko aproposa. Tel. 620-608065.
- Taberna alokagai Ipuruan (Egiguren-tarren). Tel. 658-595764.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-584022.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko eta umeak zaintzeko. Lau urteko esperientzia. Tel. 661-745591.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-265293.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta eraikuntzan lan egiteko. Tel. 651-186934. Carlos.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-359554.
- Mutila eskaintzen da lantegiak, supermerkatuak... garbitzeko. Esperientzia. Tel. 616-370323.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 659-513578.
- Gizarte hezitzaile euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 639-942094.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-244397.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako: kamarero, sukaldari, tailerlean... Esperientzia. Tel. 678-294450.
- Neska eskaintzen da arratsalde edo gauez garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 628-223441.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 697-697372.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-572831.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-221649 eta 634-005760.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Tel. 649-626975.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-723264.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Errentan
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Jornada erdiz edo orduka. Tel. 680-121252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-466742.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interno. Esperientzia. Tel. 632-987144. Ruiz jauna.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 636-302237.
- Haur Heziketan titulaturako neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka edo egun osoz. Tel. 610-658914.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 696-184323.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. 3 urteko esperientzia ostalaritzan. Tel. 652-700744.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 672-914649.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 654-281645.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta nekazarri jarduteko. Tel. 632-423984.
- Erizain laguntzaile eibartarra eskaintzen da goizez nagusiak laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari 2. mailako ofizial moduan. 14 urteko esperientzia eta erreferentziak. Ordu-tegi zabalak. Tel. 634-853845.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Osasungintzan esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-107239.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 608-293711.
- Mutila eskaintzen da pegorak edo garajeak garbitzeko eta mantentzen du lanak egiteko. Tel. 692-332871.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-358119.
- Emakumea eskaintzen da sukaldaguntzaile moduan, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 697-735046.
- Geriatria eta gizarte-hezitzaile ikasketak dituen emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-901667 eta 943-530908.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 656-648168. Laura.
- Neska eskaintzen da arratsalde edo gauez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da 13.00etik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 620-757528.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 943-201210.
- Neska eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-337083.

### 4.2. Langile bila

- Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: davidtubolab@gmail.com
- Emakume euskalduna behar da nagusia zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 692-685751.
- Kamarero euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: informazioahemen@gmail.com

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Balay lehorgailua salgai. 2011koa. 7 kiloko karga. Energia-efizientzia: A. la berria. 300 euro. Tel. 643-254175.

### 6.4. Bestelakoak

- Bigarren eskuko DBHko liburuak hartuko nituzke. Gaztelerazkoak: Lengua Castellana, Matematicas, Ciencias Sociales eta Educacion para la Ciudadania. Tel. 688-606537.
- Jende bila nabil Eibartik Bilbora (Miribillara) autoz joan eta gastuak konpartitzeko. 08.00etan joan eta 13.45etan itzultzeko. Tel. 626-349397.



HIRUROK

BELEKO



SUBEROA PORTALEA DEGUSTACION

ASKASIBAR  **INTERSPORT**<sup>®</sup>

denboraldi **%50** amaierako  
**beherapenak**



F. Calbeton, 15

943 20 19 42



# Zumaian bizi

RESIDENCIAL

# Ortiz

BIZIGUNEA

 facebook.com/inmoloiola

aukeratu etxebizitzarik egokiena




**ETXEBIZITZAK 170.000 €**  
-tik aurrera



**AUKERA**  
Eta orain,  
Zure tamainako  
finantziazioa

Sustatzailea:



Eraikitzailea:



Saltzaileak Zumaian:



# 606 957 532

[www.vivirenzumaia.com](http://www.vivirenzumaia.com) / [www.zumaianbizi.com](http://www.zumaianbizi.com)